



Jorge Sendagorta Senerreko kontseilari ordezkaria eta Emiliano Lopez Atxurra Petronorreko lehendakaria, atzo, Muskizen. ARITZ LOIOLA / FOKU

Senerrek eta Petronorrek elektrolizagailuen lantegi bat jarriko dute Bizkaian

Bazkide teknologiko bat dute, eta begi onez hartuko lukete Jaurilaritza ere sartzea • Hidrogenoaren Euskal Korridorearen proiektuak hornituko ditu lehenik

Iker Aranburu

BH2C Hidrogenoaren Euskal Korridorearen zutabeetako bat abian jarri dute Petronorrek eta Senerrek. Bizkaian elektrolizagailu alkalinoen lantegi bat egiteko akordioa sinatu zuten atzo, findegiaren Muskizko egoitzan. Uretik hidrogenoa bereizteko aparatuak dira elektrolizagailuak, eta, modu berriztagarrian sortutako argindarra erabiliko dutenez, hidrogeno berde edo garbia sortuko dutela diote bultzatzaileek. 120 milioi euroko inbertsio bat izango da; aurren hasiko dira eraikitzen, eta 2022rako hasiko da lanean, erabat bukatuta ez egon arren. Hasieran 50 edo 60 langile inguru izango dituela kalkulatu dute, baina aurrerago ehunera ere iritsiko dira, eta «kalifikazio handikoak» izango dira,

Emiliano Lopez Atxurra Petronorreko lehendakariak zehaztu zuenek.

Lantegia zehazki non jarriko duten ez dute esan, baina aukera handia dago Portugaleten izateko, hori baita, Jorge Sendagorta Senerreko kontseilari ordezkariaren arabera, gaur egun aztertzen ari diren bi kokaguneen artean «gustukoena».

Hautatua Portugalete izango balitz, lehen elektrolizagailuak joango diren lekuetatik oso hurbil egongo litzateke, denak baitaude Bizkaiko Ezkerraldearen bueltan. Izan ere, 2022. urtearen amaierarako espero dute lehen makina izatea, bi megawattetako, eta Abanton eraikitzen ari diren parke teknologia energiaz hornitze-ko baliatu nahiko lukete. Urtebete aurrerago, 2023 bukaeran, hamar MWekoa izatea nahiko

lukete, eta Bilboko portuan Petronorrek, Enagasek eta EEE Energiaren Euskal Erakundeak jarriko duten erregai sintetikoan lantegirako izango litzateke.



Lantegia ez dago suspertze funtsei lotuta, baina arduragabekeria izango litzateke kanpoan geratzea»

Emiliano Lopez Atxurra
Petronorreko lehendakaria

Denbora gehiago beharko lukete 100 MWeko elektrolizagailua prest izateko, 2025rako edo 2026rako. Azken hori Petronorren findegiaren hidrogeno berdearen beharrak betetzeko erabili nahi dute, baina baita BH2Cko beste proiektuetarako ere.

Petronor proiektuaren bultzatzaileetako bat den arren eta lehen makinak harentzat diren arren, hidrogenoa behar duten beste bezero «nazionalentzat eta internazionalentzat» egingo dituela argitu zuen Sendagortak. «Espainiak elektrolizagailu lehiakor bat izatea da helburua», gaineratu zuen Lopez Atxurrak. Horretarako, badute bazkide teknologiko bat: Belgikako John Cockerill ingeniarietza enpresa. Itxi

gabe dute proiektuaren jabetza nola banatuko duten, eta Eusko Jaurilaritza tartean izatea begi onez ikusiko luke Lopez Atxurrak. Gogorazi duenez, Jaurilaritzak, EEE Energiaren Euskal Erakundearen bitartez, «betidanik hartu du parte proiektu berri-

Ikerlan bateria proiektu baten gidaria izango da

+ Europako hamasei enpresak eta erakundeak Liberty izeneko proiektu bat abian jarri dute, indar handiko bateria elektriko bat garatzeko. Mondragon taldeko Ikerlan zentro teknologikoak gidatuko du proiektua, eta Mondragon Unibertsitateak ere parte hartuko du. Liberty Europako Horizon 2020 programak finantzatu du, 11,5 milioi euroekin. Mercedes-Benz dago parte hartzaileen artean, haren ibilgailu batean jarriko dutelako.

Helburua da gaur egungo baterien bitzta bikoiztea eta erre-kuntza motorrek dutenera gerturaztea —300.000 kilometro eta hogeit urte—, eta 500 kilometroko autonomia lortzea (+%25). Gainera, erdira txikitu nahi dute bateriek kargatzeko behar duten denbora, hemezortzi minuturaino.

tzailleetan», eta eite horretakoa da azto aurkeztutakoa.

Kontua da agian Jaurilaritzak badituela beste plan batzuk, Petronor-Senerrena ez delako zertan izan Euskal Herrian jarriko den lantegi bakarra. Iberdrolak eta Ingeteamek Iberlyzer enpresa sortu dute, bien artean elektrolizagailuak egiteko. Hirugarren bazkide baten bila ari dira, eta Eusko Jaurilaritza izan daiteke hura. Fabrika «Euskadin jartzeko ahaleginak» egingo dituela agindu du Jose Ignacio Sanchez Galan Iberdrolako presidentek, baina azken erabakia Jaurilaritzaren esku zegoela iradoki du.

EBren funtsekin, edo gabe

Lopez Atxurrak ukatu egin zuen elektrolizagailuen lantegia EBren diruak xurgatzeko proiektu bat dela. Azaldu zuen 2019an ekin ziotela proiektuari, ikusi zutelako Europako Batzordeak leku berezia eman nahi ziola hidrogenoari energia sektorearen deskarbonizazio prozesuan. «Deskarbonizaziorako estrategia beharrezkoa da; ez dago suspertze funtsei lotuta: ez da marketin operazio bat». EBren laguntzarik gabe, «proiektuak aurrera jarraituko luke», ziurtatu zuen. Hori bai, gaineratu zuen «arduragabekeria» izango litzatekeela halako proiektu bat Next Generation funtsetatik kanpo geratzea, betebetean datorrelako bat EBren estrategiarekin.